

10 TAILERRA:
HIZKUNTZA-POLITIKA: EUSKARAREN
ALDEKO ITUN SOZIAL BATEN ALDE

ENCUENTROS
DESDE LA
IZQUIERDA

**EZKERREKO
TOPAKETAK**



izquierda
ezkerra



ENCUENTRO 2

2 de abril de 2011
CINES GOLEM - PAMPLONA

**“Derechos para todos
y para todas”**

PROGRAMA:

10:00 a 11:30h. Talleres

12:00 a 13:00h. Intervención de
candidatos/as

TALLERES DE DEBATE:

- 6.** Políticas de protección social.
Políticas contra la exclusión social.
- 7.** Por un servicio público de salud de
calidad y de accesibilidad universal.
- 8.** Hacia la igualdad efectiva entre
hombres y mujeres.
- 9.** Por una enseñanza pública
gratuita, laica, democrática,
socializadora, inclusiva, integradora
y de calidad para todos y para todas.
- 10.** Por un pacto social por el euskera.
- 11.** Políticas de vivienda al servicio de
la ciudadanía.
- 12.** Una apuesta real para la
protección del medio ambiente
y un desarrollo sostenible. Cambio
climático y política energética; agua
y política hidrológica; Residuos,
espacios naturales y biodiversidad.
- 13.** Tras el cese de la violencia de
ETA, ¿qué?

2 TOPAKETA

2011ko apirilaren 2an
GOLEM ZINEMAK - IRUÑA

**“Eskubideak gizon-emakume
guztientzat”**

EGITARAUA:

10:00etatik 11:30 arte. Tailerrak

12:00etatik 13:00etara. Hautagaien
mintzaldiak

EZTABAIDA TAILERRAK:

- 6.** Babes sozialerako politikak.
Baztertze sozialaren aurkako
politikak.
- 7.** Osasun zerbitzu publiko
unibertsal eta kalitatezkoaren alde.
- 8.** Emakumezkoaren eta
gizonezkoaren arteko benetako
berdintasunaren alde.
- 9.** Irakaskuntza publiko, doako, laiko,
demokratiko, sozializatzaile, hartzaile,
integratzaile eta kalitatezkoaren alde,
gizaseme-alaba guztientzat.
- 10.** Euskararen aldeko gizarte
itunaren alde.
- 11.** Etxebizitzaren aldeko politikak
hiritarren zerbitzutan.
- 12.** Ingurumenaren babesaren eta
garapen sostengarriaren aldeko
zinezko apustua. Klima aldaketa eta
energia-politika; ura eta politika
hidrologikoa; hondakinak,
natura-guneak eta bioaniztasuna.
- 13.** ETAREN bortizkeria amaitutakoan,
zer?

PRESENTACIÓN

Izquierda-Ezkerra ha surgido del encuentro de Izquierda Unida de Navarra, Batzarre, Plataforma por el Cambio de Navarra (antiguos socialistas), personas independientes que formaron parte de Nabai y otras gentes de izquierda. Y supone un paso importante en la unidad de las izquierdas transformadoras de Navarra.

Vivimos un momento difícil y cargado de novedades. Sin duda descuellan la crisis económica y el deterioro social. Nos hallamos ante una de las mayores crisis económicas de las últimas décadas, de dimensión global-mundial. Una crisis profunda que afecta a amplias capas sociales y que provoca situaciones verdaderamente dramáticas: paro, incremento de las desigualdades sociales, aumento de la precariedad y de la exclusión social, recortes salariales, de las pensiones, deterioro del Estado de Bienestar... La crisis ha quebrado el paradigma neoliberal de los últimos años, basado en la liberalización casi total de la economía financiera, en la falta de regulación de estos mercados y en la promoción por parte de los Estados de la economía especulativa. Sin embargo, ante su fracaso la única respuesta que nos ofrecen los gobiernos conservadores o socialdemócratas son recortes en derechos sociales y reducción del Estado social de bienestar.

Necesitamos otra respuesta que suponga una mejora de las políticas públicas en educación, salud, pensiones, servicios sociales, etc., el apoyo a los damnificados de la crisis (parados, jóvenes, mujeres, pensionistas...) y la apuesta por un nuevo modelo productivo sostenible y solidario que genere empleo de calidad respetando la naturaleza.

El otro hecho importante, aunque de menor repercusión, es la previsible desaparición de ETA. ETA ha traído muerte, sufrimiento; su desaparición será un hecho muy positivo para nuestra sociedad. ETA ha condicionado muchísimo la vida política y social. Por esto, su desaparición esta suponiendo un reordenamiento del nacionalismo vasco, y también repercutirá en la nueva articulación de las fuerzas de izquierdas navarras.

AURKEZPENA

Izquierda-Ezkerra Nafarroako Ezker Batuak, Batzarre, Nafarroako Aldaketaren Aldeko Plataformak (lehengo sozialista batzuk), Nabaiko independenteak izandakoek eta ezkerreko bestelako jendeak bat egitetik sortu da.

Une zaila eta berrikuntzez betea bizi dugu. Zalantzarik gabe, krisi ekonomikoa eta narriatze soziala dira nabarmenenak. Azken hamarkadetan izandako krisi ekonomikorik handienetakoaren aurrean gaude, mundu-globaleko mailakoa. Jendarteko talde ugari eragin eta egoera dramatikoak eragiten dituen krisi sakona: langabezia, jendarteko taldeen arteko aldeak handiagotzea, prekaritatea eta bazterketa soziala areagotzea, soldaten eta pentsioen murrizketa, Ongizate Estatuaren narriatzea... eragin dituen, alegia. Azken urteotako paradigma neoliberalak, finantza merkatuen ia erabateko liberalizazioan, merkatu hauen arau ezean eta Estatu Batuek bultzaturiko espekulazio ekonomian oinarritua berau, puskatu egin du krisiak. Eta hala ere, izandako porrotaren aurrean, gobernu kontserbadore eta sozialdemokratik honakoa besterik ez digute eskaintzen: eskubide sozialen eta Ongizate sozialaren Estatuaren murrizketa.

Bestelako erantzuna behar dugu, ordea, honakoak ekarriko dizkiguna: hezkuntzan, osasunean, pentsioetan, gizarte zerbitzuetan... egiten diren politika publikoen hobekuntza, krisiak kaltetutakoei (langabetu, gazte, emakume, erretiratu...) laguntza eta elkartasunezko ekoizpen eredu berri eta jasagarriaren aldeko apustua, naturari kalterik egin gabe kalitatezko enplegua sortuko duena.

Beste gertaera garrantzitsua, eragin txikiagokoa bada ere, ziur aski gertatuko den ETAREN amaiera da. ETAK heriotza ekarri du, sufrimendua; haren amaiera oso gertaera positiboa izanen da gure jendartean. ETAK izugarri baldintzatu du bizitza politikoa eta soziala. Horregatik, haren amaierak euskal nazionalismoaren berrantolaketa ekarriko du eta Nafarroako ezkerreko indarren antolaketa ere eragina izanen du.

Con estos Encuentros Izquierda-Ezkerra (n) deseamos abordar estas y otras cuestiones que nos afectan a las gentes de izquierdas. Y pretendemos abrir un espacio de reflexión, de contraste, de elaboración de propuestas y de enriquecimiento de ideas ante los problemas que tenemos. Por ello, te animamos a participar. La colaboración entre personas de diferentes organizaciones políticas, sociales, sindicales, ONGs... de la izquierda social, puede contribuir a forjar un potente movimiento social que dé una respuesta diferente a la crisis económica, que mejore el Estado de Bienestar, que ofrezca un futuro sin violencia y que abra las puertas a un tiempo de esperanza.

Topaketa hauetan, Ezkerra (n)-kook, hauei eta ezkerreko jendea kezkatzen gaituzten beste gai batzuei heldu nahi diegu, eta gune bat ireki hausnarketarako, alderaketarako, proposamenak prestatzeko eta ditugun arazoan aurrean elkarren ideiak aberasteko. Horregatik, animatu egin nahi zaitugu parte har dezazun. Talde politiko, sozial, sindikal, GKE... ezberdinetako jendearen arteko elkarlana lagungarri izan daiteke, krisi ekonomikoari bestelako erantzuna eman, Ongizate Estatua hobetu, indarkeriarik gabeko etorkizuna eskaini, eta itxaropen aldi bati ateak irekiko dizkion mugimendu sozial sendoa eratzeko.

10 TAILERRA

HIZKUNTZA-POLITIKA: EUSKARAREN ALDEKO ITUN SOZIAL BATEN ALDE

Bi dira Nafarroako berezko hizkuntzak, horrelaxe dago jasoa Foru Hobekuntzan eta, horren ondorioz, bi hizkuntzen ezagutzari eta erabilerari dagokionean, arlo publikoan nafarrek eskubideak dituzte eta zenbait kasutan betebeharrak.

Euskara, milaka urteko hizkuntza europarra eta kultura ondare unibertsala da, eta kohesio sozialerako elementua izan behar du gure Foru-Erkidegoan. Euskararen garapenaren eta hizkuntza-normalizazioaren defentsa gure eginbeharra da, eta halaxe egiten dugu udal eta foru botere publikoen esku-hartzearen bitartez. Hauek lagundu beharra dute hiritar guztiok hizkuntza hau ezagutzeko eta askatasun osoz erabiltzeko dugun eskubidea bermatzeko, bai foru administrazioaren arloan, eta bai elkarbizitzari dagozkion bestelako arlo guztietan.

Euskararen berreskuratzea eta normalizazioa sustatuko duen hizkuntza-politika nahi dugu gure erkidegoan, betiere errespetutik eta hiritarrok modu askean aritzeko dugun eskubidetik abiatuta. Baita adostasuna eta akordioa lortzeko egin beharreko lanetik abiatuta ere, eta inolaz ere hizkuntza diskriminaziotik. Hori lortzeko modurik egokiena, Euskararen aldeko Itun Sozial baten alde lan egitea da, errespetua eta Nafarroako aniztasuna kontuan hartuta egingo dena.

Hizkuntza eskualdetan banatzea eta hizkuntza-politika berria.

Euskararen Foru legeak, Hobekuntzaren aurreikuspenak garatuta, hiru hizkuntza-eskualde ezarriak ditu Nafarroan: Bata, euskal hiztun eskualdea. Honetan, euskara

koofiziala da gaztelaniarekin batean. Beste bat, eskualde mistoa, eta hirugarrena, erdalduna. Honetan euskara ez da hizkuntza ofiziala.

Administrazioan euskararen erabilera arautzen duen 372/2000 Foru-dekretuarekin batean, hizkuntza-normalizazioaren prozesuan inflexio-puntua gertatu zen gure erkidegoan. Foru-dekretua onartzeak, atzerakada handia ekarri zuen Nafarroan ordura arte eskuratutako hizkuntza-eskubideen garapenean eta aldi berean, horren kontrako erantzun handia gizartearen aldetik. Auzitegiek hori deuseztatu eta erabaki honek beste dekretu bat ekarri zuen 29/2003 Foru-dekretua. Aurrekoaren berdin berdina zen ia-ia; horregatik helegitea aurkeztu zen eta lau atal berezi baino ez ziren baliogabetu. Dekretu hauek euskara erabiltzeko eskubideak murriztu egiten dituzte euskal hiztun eskualdean eta ezerezean utzi gainerako eskualdeetan.

Gobernuak zein UPNk zuzendutako udalek segitutako hizkuntza-politika ez dator bat Europako instituzioek onartutako hizkuntza-politikoaren xedapen orokorretan esaten denarekin eta zehazki, Eremu Urriko eta Eskualdeko Hizkuntzen Europar Batasuneko Gutunarekin. Europako Kontseiluko Eremu Urriko Hizkuntzen Europar Bulegoko adituen batzordeak, Espainian Gutunaren ezarpenari dagokionean egindako txostenean, adierazten du Nafarroako Gobernuak murriztu egin duela euskararen erabilera eta zenbait kasutan arlo publiko instituzionaletik desagerrarazi egin duela 29/2003 Foru-dekretuaren babespean. Txostenak Nafarroako Foru Erkidegoan euskarak bizi duen egoera kezkarriaren berri ematen zuen, erkidego honetan asko baitira euskararen garapena eragozten ari diren esparruak, gizartearen dauden eskakizunak bestelakoak izan arren; politika murriztaile eta atzerakoia nabaria da. Adituek osatutako batzorde honek honako hauek gomendatzen ditu: euskararen erabilpen politikoaren amaiera, diskriminazio positiboa, departamentuen arteko administrazio-organoa sortzea; honek ahaleginak egingo baititu politika linguistiko egoki bat planifikatzen eta abiarazten, Eremu Urriko eta Eskualdeko Hizkuntzen Europako Gutunean adostutako hatsarreekin eta Euskararen Foru Legearekin bat etorriko dena. Hauek ere gomendatzen ditu: Foru Erkidegoan euskararen

defentsan, sustatze lanetan eta garapenean diharduten agente ezberdinekin harremanak normaltzea, eta euskararen irakaskuntza publikoa Nafarroa osoan ahalbidetzea, betiere nahikotasun eta proportzionaltasun irizpideak kontuan hartuta.

Zoritxarrez, eskakizun hauen aurrean, Nafarroako Gobernuak ukatu egin du Europako Gutunaren indar loteslea Foru-xedapenen gainetik eta aldi berean zalantzan jarri du adituek osatutako batzordearen objektibotasuna. Horixe izan da Nafarroako Gobernuaren erantzuna.

Gure proposamenak

a. Hizkuntza-normalizazioaren alde gaude, euskara egunerokoan adierazpen zein komunikazio tresna izan dadin eta halatan gizarte osoa, kohesiona eta integra dezan. Normalizazio prozesuak berdintasuna, nahikotasuna, eta hiritarren hizkuntza eskubi-deekiko progresibotasun eta begirunearen funtsezko hatsarreen gainean eraikia behar du izan.

b. Normalizazioranzko programak sustatzearen alde egin nahi dugu bi maila ezberdinetan. Lehen, euskararen egoeraren hobetzeari legokioke arlo guztietan komunikazio tresna izan dadin, administratibotik eta beronen zerbitzuetatik hasita, gizarte harremanen arloraino. Eta bigarren maila, euskararen presentzia lekukotasunezkoa den eskualdeetan euspenaren zein sustapenaren aldeko neurri bereziekin loturik egonen litzateke eta halatan sentsibilizazio kanpainak egin, helduen prestakuntza landu, dokumentazioa zein materialak argitaratu, komunikabideetan euskararen erabilpena bultzatu; eta eskolaratzea, euskara ikastea bermatuko duten A, B eta D modeloetan eskaini, betiere eskariaren arabera eta nahikotasun irizpidean oinarrituta.

c. Halaber, planteatu nahi dugu euskararen ofizialtasunaren egokitasuna onestea Nafarroako Foru Erkidegoan, eskualderik bereizi gabe (Eremu Urriko eta Eskualdeko Hizkuntzen Europar Batasuneko Gutunak ere ez baitu mugatzen aplikapena ofizialtasun aitortpena eginga den eskualdeetara, hizkuntza horren hiztun sailtxoa dagoen tokietara baizik), nolana dela, hizkuntza-politika,

egoera soziolinguistiko diferenteetara egokituz eta berdintasun zein nahikotasun hatsarreei men eginez. Adibidez, euskararen irakaskuntza edo eta irakaskuntza euskaraz egite alderako eskaintza publikoa, eskaria nahikoa dagoen edozein eskualdetan egin beharko litzateke.

d. Ildo horretan, Nafarroa osoan euskararen ofizialtasunari dagokiola, Foru Hobekuntza-aren eta euskararen legearen erreformaren alde egin nahi dugu, lehenik bai irakaskuntza euskaraz, bai hiritarrei harrera administrazio publikoen zerbitzuetan berma-tzeko, eta bigarrenik, zirkuitu administratibo elebidunen aplikapena hiritarren eskariaren arabera eta proportzionaltasun hatsarreari men eginda.

e. Unibertsitatearen arloan normalizazio planak gauzatzearen aldekoak gara. Hauen bidez, euskaraz egindako ikerketak jarriko dira abian, ematen den benetako eskakizunaren arabera. Hau guztia, botere publikoek sustatua izango da eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren zuzendaritzak koordinatua.

f. Nolanahi dela, Nafarroan gaur egungo eskualde mistoan eta erdaldunean, irakaskuntza arloan eta unibertsitarioan euskararen normalizazio zein sustapenerako politikan gure abiapuntua hau da: nahikotasun hatsarrea errespetatu beharra dagoela. Hezkuntza sistemak zein unibertsitateak bermatu behar dute euskaraz ikasteko eskubidea eta halatan dagoen eskariari erantzun eta egiturak eta baliabideak eskari horretara egokitu. Kontua da, azken finean, administrazioak eskualde horietan aukeratzeko askatasuna errespetatzea eta ez inposatzea bere irizpideak eta politikak.

g. Egun diren hizkuntza ereduaren artean, gure hizkuntzetan benetako elebitasuna eta kanpoko hizkuntza baten ezagutza ziurtatzen duen bakarra D eredu da, eta horregatik Nafarroa osoan ikasi ahal izan beharko litzateke. Hala ere, gure ustez, eskualde ez euskaldunean A ereduaren indarra ez da gutxiestekoa, izan ere, bere mugak izanda ere, aukera bakarra baita zonalde horretan euskarara hurbiltzeko. Gainera, eredu hori indartu egin beharko litzateke eta euskaraz beste esparru batzuetara ere iritsi beharko luke, TIL programak (Tratamiento Integrado de las Lenguas) egiten duen bezala.

Kanpoko hizkuntza baten ikaskuntza indartzea egokia iruditzen zaigu, baina bertakoak ikastea ziurtatua dagoelarik. Horretarako hizkuntza-eredu guztiak ebaluatu egin beharko lirateke, eta, emaitzak aztertuta, bai hizkuntzetan lortutakoak zein gainerako gaitasunetan lortutakoak (hizkuntza, matematika, zientziak, teknologia...), eskaintza era egokian planifikatu, Nafarroako hezkuntza sistema hobetzeko. Geure hizkuntzetan oinarritutako eleaniztasunaren aldeko apustua egiten dugu.

Gure derrigorrezko hezkuntza sisteman indarrean dauden hizkuntza-ereduak errespetatzen ditugu, eta aintzat hartzen ditugu gehien eskatzen diren ereduentzako beharrezko bitartekoak. Ereduen arteko elkarbizitza beharrezkotzat jotzen dugu, eta egungo segregazio politika baztertzekoa dela uste dugu.

Hizkuntza-eredua edozein dela ere, ezinbesteko helburua da ikasleria eskolatzea, batez ere gizarte-egoera ahuleko sektoreetakoa, hots, gure hezkuntza sisteman moldatzeko zailtasunak dituzten atzerritarrak edo etorkinak, hezkuntza-politika orokorra publikoa, integratzailea eta malgua izan dadin.

h. Gainera, helduen euskalduntzean diharduten zentroi arreta eman eta kofinantzatu, udal euskaltegien sarea sustatu eta material didaktikoak sortzeko lanak indartu. Hori guztia, formazioaren ardura duten pertsonen beharrei erantzuna emateko, eta eskuin batuaren gobernuak azken urteotan egin dituen arrazoirik gabeko murrizketak leheneratzeko.

i. Administrazio publiko guztiek hizkuntza-normalizazioan eta helburu horretarako ezartzen diren planetan parte-hartzeko, ezinbestekoa da instituzioen arteko koordinazioa, Nafarroako Gobernuak bultzatua. Administrazioek ez dute bakoitzak bere kabuz ari behar, korrelazio politikoen haizeak nora, euren jarduna hara, horrek euskararen erabilera alderdikoia baitakar.

j. Euskararen erabilera normaltzeko, funtsezkoa da komunikabideen bidezko hedapena. Horregatik sustatu egin behar da euskararen hedapena ikus-entzunezko komunikabide publikoetan, finantzazio foralaren eta komunikabide horiekiko elkarla-

naren bidez. Europako Gutunean hartutako konpromisoa bete egin behar da, alegia, euskaldunek gutxienez irrati bat eta telebista bat euskaraz izan behar dute.

k. Hezkuntza Sailak plan bereziak egingen ditu irakasleria euskalduntzeko, liberazioak eskainiko ditu euskara epe jakin batean ikasteko konpromisoa hartzen duten pertsonentzat, eta, gero, birziklatze ikastaroak ziurtatuko ditu Nafarroako eskualde guztietan.

l. Elebitasuna normaltasun osoz integratuko da Nafarroako eta bertako entitate lokaletako elementu sinboliko eta identitate-elementu guztietan (kaleetako errotulazioa, eraikin publikoak, zerbitzu publikoak, etab.).

Kazetaritzaren arauetikiko begirunetik eta komunikabide publikoek balore demokratikoak hedatzeko konpromisoarekiko konfiantzatik begiratuta, guk uste dugu hedabideek euskarari eman beharreko tratamenduak saiatu behar duela, beti, hizkuntza euskaldunak ez direnengana hurbiltzen, hizkuntzaren pertzepzio soziala hobetze aldera.